

## Bernadette Soule EEPko zuzendari berria

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAK zuzendari berria izango du hemendik aurrera: Donibane-Garaziko Bernadette Soule. Estebe Eiherrabideren tokia hartuko du. EEPk 2011-2016 lan egitasmoa abenduan onartuko du eta euskararen transmisioan eta erabileran oinarrituko plana.

## Mugarik Gabeko Telebista eta Kongresua

ESPAINIAKO Kongresuko Mahaiaik, Gobernuak Mugarik Gabeko Telebista ekimenari jarritako betoa

atzera bota du. Ekimenak aurkeztutako 500.000 sinaduraren tramiteak aurrera ez egitea erabaki zuen Gobernuak, ekimenak eskatzen duena gastu publiko handia dela arrazoituz. Kongresuko Mahaiaik ez du arrazoi hori onartu eta argudio gehiago eskatu dizkio. Mugarik Gabeko Telebista ekimenaren eskaera da telebista kate autonomikoak ez daitezela emititzen diren erkidegoetara mugatu, eta hizkuntza partekatzen duten erkidego guztietan emititzeko aukera izan dezatela. Ekimena valentziarrek jarri zuten abian Kataluniako TV3 ikusi ahal izateko, baina berdin balio du nafarrek ETB ikusi ahal izateko.

## Sinadura bilketa Iruñean euskara babesteko

EUSKALGINTZAKO hainbat eragilek (AEK, Administrazioan Euskaraz Taldea, EHE, IKA eta Sortzen Ikasbatuaz) bat egin eta sinadura bilketa abian jarri dute euskarak bere espazioa izan dezan aldarrikatzeko. Euskalgintzako kideek hartu beharreko hiru neurri aipatu dituzte nagusiki: hizkuntza paisaian euskarak dagokion tokia izatea, kultur eskaintzan eta aisialdikoan ere euskara aintzat hartzea eta zerbitzuetan euskarak dagokion tokia izatea. Otsailera arte AEK eta IKAKo euskaltegietan jasoko dituzte sinadurak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:  
[www.argaia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argaia.com/harpidetza_haria.php)

## BAHEA

Jean-Louis Davantek *Le Journal du Pays Basque-en* esanak: “

Hegoaldetik batzuek galdetzen digute: ‘Zergatik eta zertako duzue iparraldeko batu hori?’

Erantzuna simple zait: zuek hegoaldeko batu bat erabiltzen duzuelako, hiztegian guretzat aski urruna, ez errateko arrotza, gainera maiz erranaldietan gaztelararen pleguetara tolestua. Hortik euskara batuaren izenean saltzen zaiguna, frankotan gipuzkera osatua da.(...)

Lapurtera baztertzan duen euskara bat ez da batua, gipuzkera osatua baizik ez da. (...) Erdiko euskaldunen kontra ez dut ezer, bereziki ekialdeko gipuzkoarren aurka.

Euskararen bizkar hezurra osatzen dute, beharrik hor ditugu, baina kontutan har dezatela zer lana kosta zaigun bazterrekoiei euskara batuaren ikastea”.

Iparraldeko ikastolen diru-laguntzei buruz Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak *Deia-n* esanak: “Kultura Sailak ez du dirurik adreiluak erosteko, zer egiten du Frantziako Gobernuak gai honetan?”.

## TALAIAN

### Zerbait ari da mugitzen Ipar Euskal Herrian

Frantziako Estatuan joan den astean egindako bederatzigarren grebak Ipar Euskal Herriko errealitatea agerian utzi du: zerbait ari da mugitzen, baita Euskal Herriko zati horretan ere. Gure herriaren iparraldea “lotan” zegoen gune bezala agertzen zen, langile eta herri borroketatik urrun, eta guztiz baldintzatuta, bai lan iturrien desegiteagatik, bai lana uda garaira murriztu zelako eta baita, ondorioz, bertakoak Frantziako beste lekuetara emigratzen zutelako ere. Pentsioen erreformaren kontrako greba eta mobilizazio aldi honetan, Ipar Euskal Herriko langileak, ikasleak eta herri-tarrak gogoz ari dira parte hartzen. Nabarmenezkoa da ikasle gazteen parte-hartzea greban eta manifestaldietan, helduekin elkartasuna adierazi dute eta etorkizuneko euren lanpostuen alde egin dute.

Egia da, Ipar Euskal Herriko nekazal sektoreetan azken urteetan mugimenduak egon direla beraiena defendatzeko. Baina pensioen erreformaren kontrako azkeneko greba eta manifestazioek mobilizazio handiagoa sortu dute, ez baita mugimendu sektoriala izan, orokorra baizik. Sektore publikoak, baita pribatuak ere; bai industriako langileak (Baiona-Angelu-Biarriz inguruak), baita gainerako herritarrak ere, ikasleak barne. Ez dago zalantzarik pensioek herritar guztiei eragiten dietela eta arriskuan edo merkealdian jartzen direnean gai oso sentibera dela eta mugiarazi egiten duela. LAB sindikatuak, Ipar Euskal Herriko beste sindikatu, herri mugimendu eta alderdi politiko abertzaleekin batera azken urteetan egin duen lanak, horretan lagundu du seguruena.

Juan Mari Arregi